

BERRI OROKORRAK

2019ko urriaren 31an 8. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

Azaroaren 6an, Euskaraldiko ikerketaren Usurbilgo emaitzen aurkezpena, Potxoenean.



2018ko udazkenean ospatu zen lehen aldiz *Euskaraldia*: 11 egun euskaraz ekimena. Herritarren hizkuntza-ohiturak euskararen alde aldatzea zuen helburu, baina lortu al zen euskararen erabilera sustatzea eta eskuratutako ohitura berriak epe luzean iraunaraztea? Euskaraldiaren eraginkortasuna neurtzeko eta aztertzeko asmoz, *I. Euskaraldia ikerketa* burutu da. Ikerketa horren Usurbilgo emaitzak aurkeztuko dira hitzaldi horretan.

Horrekin batera, Euskaraldiaren 2. edizioari begira jarriko dira, edizio berriaren aurkezpen publikoa egingo baita. Bertan, 2020ko Euskaraldiaren berrikuntzak aurkeztuko zaizkie herritarrei: Nola parte hartuko dute entitateek? Zer dira ARIGUNEAK? Nola lagun daiteke ekimenaren antolaketan?

Hitzordua: Azaroaren 6a, asteazkena, 18:00etan, Potxoenean.

1.-Jangela menua.

Azaroan jangelan emango diren menuen berri, buletinarekin batera helarazten dizuegu.

2.-Xakea.

Xakeko eskolak **azaroaren 6an** hasiko dira:

Asteartea: LH5, DBH1 eta DBH2

Asteazkena: LH3 eta LH4

Osteguna: LH1 eta LH2

3.-Familia-plana.

Azaroaren 9an, Usurbilen, Mundualdia ospatuko da. Bertan, munduko jaki zein dantza ezberdinez gozatzeko aukera izango da, besteak beste. Zirimarak, Orbeldi dantza taldearekin batera familia-plana prestatu du larunbat arratsalderako.

Arratsaldeko 17:30ean elkartuko gara Mikel Laboa plazan eta bertan Herri Kiroletan jarduteko aukera izango dugu haurrekin batera. Jarraian, arratsaldeko 18:00etan, ekitaldiari hasiera emango zaio eta guztiok elkarrekin dantza batzuk ikasteko aukera izango dugu!

Anima zaitetzte!

4.-Errigora.

"Euskarari puzka". ERRIGORA egitasmoren udazkeneko kanpaina abiatuko da urriaren 29an! **Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuak** gure artean saltzearen truke, jasotakoaren %25 zonalde harretako euskalgintza laguntzera bideratuko duen ekimena da ERRIGORA.

Aurtengoan hiru kutxa izango dira aukeran: BELTZA (50 €), BERDEA (60 €) ETA ZURIA (70 €). 23 etxek eskainiko dizkigute haien produktuak. Dozenaka langile. Ehunka nekazari. Bada familia!

Saskietan datozen produktuak hauek dira:

- **Saski beltza (betikoa)**: oliba-olio birjina estra, botila ardoa, orburuak, potxak, mahats-zukua, pikillo-piperrak, zainzuri zuriak, zainzuri-krema, teilak, melokotoia almibarrean, kardua, tomate frijitu

eta piper txorizero mamia.

- **Saski berdea (ekologikoa):** Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, botila ardoa, oliba-olio birjina estra, potxak, mahats-zukua, arzoa, pasta, barazki-menestra eta ozpina.
- **Saski zuria (berezia):** Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa (kriantza), patxarana, ardo apartsua, polboroiak, patxaran-mantekatua, txokolatezko arrokak eta pikillo piper marmelada.

Kanpainaren aurkezpena Iruñan egongo da urriaren 29an. Saskiak **urriaren 30etik azaroaren 20ra** egongo dira salgai. Kutxen banaketa abenduaren 9tik 18ra bitarte egingo da. Ordainketa kutxa jasotzean egin beharko da.

Otarrak ikastolako idazkaritzan egongo dira ikusgai datorren astetik aurrera. **Eskaerak idazkaritzan** bertan egin daitezke (943361216) **edota haur eskolan** (943374061). Ordainketa otarra jasotzeko momentuan egingo da.

OHARRAK ETAPAKA

HE

1.-Gela-bilerak.

Hau da ikasturte hasierako bileren egutegia. Zaintza zerbitzua eskainiko da.

MAILA	EGUNA	ORDUA	NON
1-2 Manttangorriak	Azaroak 6, asteazkena	17:00	Seme-alabaren gelan
2-3 Tximeletak	Azaroak 7, osteguna	17:00	Seme-alabaren gelan
2-3 Txerriak	Azaroak 7, osteguna	17:00	Seme-alabaren gelan

HH

1.-Zorriak.

HH 3ko Ikasle batzuegan zorriak somatu ditugu.

Norberak bere haurrekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

Arazo hau ezabatzen erraza egiten ez dela jakitun, mediku batekin alderatu ditugun zorrien aurka egiteko jarraibide batzuk emango ditugu.

Zuen seme edo alabaren batek zorriak dituela ikusten baduzue:

1. Ondo begiratu familiako denei.
2. Zaindu arretaz bakoitzaren gorputz-garbitasunari dagokiona. Hala nola:
 - Orrazien garbitasuna arretaz begiratu.
 - Bakoitzak bere orrazi, eskuila, zinta, gantxo eta bestelako ile-apaingarriak izan eta erabiliko ditu.
3. Tratamendu berezia:
 - Buruko larrua zorrien aurkako lozio batez igurtzi (**KISE, ITAX,...**) eta horrela eduki 6 edo 8 orduz toalla batez estalita.
 - Oihala kendu ondoren, hildako bartzak (arrautzak) orrazi fin batekin baino, **eskuz banan bana kentzea eraginkorragoa da.**

Aste bat pasa ondoren tratamendua berri aurrekoan bezalaxe.


NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.

2.-Paperezko poltsak.

Guraso-bileretan aipatu bezala, zuen seme-alabek gelan egindakoa etxera eramateko, paperezko poltsak behar ditugu. Poltsa horiek apaindu egingo ditugu, beraz, pixkanaka ikastolara ekartzen hasi.

3.-Proiektu interesgarria.

LH4ko ikasleek, gelan landutako lehenengo proiektuari bukaera emateko, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez mezuak sortu dituzte eta ikastolan zabaldu nahi dituzte. Mezu hauek gutun bidez, posterrekin edo audio grabaketan bidez zabalduko dituzte. Datorren astean gazteleraz grabatu dituzten audioak entzuteko aukera izango duzue 11:00etan, 12:30ean eta 16:30ean ikastolako megafonia bidez.



1.-Eskola-Osasuneko programa; LH 6ko ikasleei zuzenduta.


Giza Papilomaren Birusaren aurkako txertoa jartzeko, nesken kasuan, eta ACWY Meningokokoaren aurkakoa, bai nesken eta bai mutilen kasuan, baimena eman duzuenoi jakinarazten zaizue osasun zentrotik **azaroaren 6an**, goizez, etorriko direla txertoa jartzera.

2.-Proiektu bukaerako audioak.

LH4ko ikasleek, gelan landutako lehenengo proiektuari bukaera emateko, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez mezuak sortu dituzte eta ikastolan zabaldu nahi dituzte. Mezu hauek gutun bidez, posterrekin edo audio grabaketan bidez zabalduko dituzte. Datorren astean gazteleraz grabatu dituzten audioak entzuteko aukera izango duzue 11:00etan, 12:30ean eta 16:30ean ikastolako megafonia bidez.

3.-Galdutako arropak.

Ikasturtean zehar galdutako arropak eta gauzak Ageri-Aldeko eraikineko sarreran dauden kaxa uzten dira. Dagoeneko kaxa bete-beteta dago. Beraz, zuen seme-alabek zerbait galdu badute, begiratu bertan mesedez.



1.-DBH3 eta DBH4. Mailan hautazko gisa frantsesa duten gurasoei zuzenduta.

Azaroaren 7an, osteguna, arratsaldeko 17:00etan bilera egingo da, Britainiako elkartrukearen inguruan informazioa emateko.